

Erregio hauteskundeak Frantzian

Eskuineko oposizioaren batasuna (UPF) Frantziako indar politiko handiena modura azaldu zen joan den igandeko hauteskunde erregionaletan. Agintean dagoen PSk, aldiz, inoiz izandako beherakadarik handiena izan du nahiz eta oraindik bigarren tokian geratu. Alabaina ohizko alderdi politikoen eragina-

ren gutxitzea nabaritu da bozkaldi honetan eta bai ekologistek bai Fronte Nazionalak dute gertakari honetaz abantaila hartu. Dena den, hauteskunde hauetako ezusterik handiena botoemateen partehartze handia izan zen, % 70 ingurukoa izan bait zen, aurrakuste guztiak gezurtatuz.

Oreka politikoa aldatu du proportzionalak FN eta ekologistek jaso dituzte UPF eta PSk galdutako botoak

ALLANDE SOKARROS / BAIONA

Ekologistak eta mutur eskuineko Fronte Nazionala (FN) izango dira datozen sei urteetan Frantziako hainbat erregioetako biltzar gehiengoaren epaileak. Izan ere, botoen % 14 lortuta beren eragin politikoa askoz indartu dute eta eskuin nahiz ezkerreko alderdi handiek ez dezakete agintze gehiengorik gauzatu beraien kontutan hartu gabe. Azpimarra daitekeenez, proportzionala boto ereduak zerikusi handia izan du gertakari honen sorreran, departamendu batean % 5 inguruan eskuratzea nahiko bait zen zinegotzi bat lortzeko.

Frantziar barne ministeritzak atzo goizean zabalduzako behin betirako emaitzen arabera, RPR eta UDF eskuineko alderdiek osatutako UPF batasuna da igandeko hauteskunde hauen garaile azaltzen, botoen % 33 lortuta. Gaurregun Frantziako gobernu agintean dagoen PSk aldiz bigarren tokia bakarrik du hartzen, botoen % 18,3 eskuratuz.

Azken urte guztietako gora egitearen jarraian, Fronte Nazionala mutur eskuineko alderdia Frantziako hirugarren indar politikoa azaldu da, % 13,9 bat bereganatuz. Portzentaia hau bera lortu zuten ekologistek baina azpimarratu behar litzateke emaitza hauek bi mogimenduren artean lortutakoak direla, hain zuten ere Berdeak eta Ekologia Belaunaldia. Alderdi komunistari dagokionez, botoen % 8 bakarrik bereganatuta orain arte ezagututako emaitza txarrenen heinean geratu da.


SOZIALISTEN EMAITZA TXARRENA

Frantziako eremu osoan gertatzen ziren erregio hauteskunde hauen datu ohargarrietarik bat alderdi sozialistaren behera egite nabaria izan da. Izan ere, PSk 1971. urteko bere sorreraz geroztik inoiz ezagututako emaitza gutxienean izan du eta % 18,3 hauekin azpimarra daiteke ere lehen aldikoz % 20ko marraren azpira jaisten dela. Hala ere agintean dagoen alderdiaren porrot egite honek ez dio ueste bezainbat mesederik ekarri eskuineko oposizioaren batasunari, UPFk botoen % 33 lortzearekin beherakada bat paraitu bait du, 1986. ko hauteskundeekin alderatuta (% 39,3).

Behera egiteari ekin dio ere



Biak garaile irten arren, Lalonde eta Waechterren arteko borrokan lehenak irabazi du.



berriro frantziar alderdi komunistak zeren botoen % 8 bakarrik bereganatuz, duela sei urte lortutako emaitzetatik bi pundu galdu ditu eta orain arte ezagutu duen hauteskunde kopuru apalaren inguruan geratu bait da (% 7,7 Europarako bozkaldian 1989.ean).

EKOLOGISTEN LEHIAKETA EMANKORRA

Ekologistei zaien tokatzen igandeko bozketa hauen emaitza ondorioitsuena, guztira 13,9 bereganatu bait dute. Hala ere lorpen hau bi mogimenduren arteko kopuruen batuketa dagoela azaldu behar da, Antoine Waechterek zuzendutako Berdeak (% 6,8) eta Brice Lalonde ingurumen ministroa

buru duen Belaunaldi Ekologikoa (% 7,1) hain zuten ere. Azpimarratzen ahal litzatekeenez, berrienik sortutako Belaunaldi Ekologikoa da bi alderdien arteko lehiaketan garaile atera eta gertaera honek ondorioak ekar ditzateke ekologisten munduan.

Erregio hauteskunde hauetan proportzionala boto ereduak eragin dituen ondorioen adiarazle argiena Ile de France eskualdeko emaitzak daude. Parise eta bere inguruko erregioan UPF da garaile atera (botoen % 34) eta PSk % 14,5 bakarrik du bereganatu. Ondorioz, bai Fronte Nazionalak (% 16) baita ere ekologistek (% 18 bi alderdien artean) aurrea hartu diote Frantziar agintzen duen indar politikoari.

«Frantziarrek emandako oharra» kontutan hartzeko prest dago PS

PARISE

Edith Cresson Frantziako gobernuaren arabera, erregio hauteskunde hauetan «ez da gehiengo nabaririk agertu» eta gaineratu zenez «lagundu nahi izango nauten indar aurrerakoi guztiekin gobernatzeko prest nago». Hitz hauen bitartez ekologistak zituen argi aipatu nahi Frantziako lehen ministroak, zeren komunikabideei egindako deklarazio berean gehitu zenez «nahikunde berri hauek azaltzen digute frantziarrek hobeki adituak izateko gogoia dutela».

Laurent Fabius Frantziako Legebiltzarreko lehendakari sozialistak, aldiz, PSren porrot egitea nahiko minberaki aztertu zuen «emaitzak hauek ez dira baxter onak» adierazita. Frantziar gobernuaren izandakoak gehitu zenez, «botoemateek bidali digute mezuari kontu eman behar diogu. Gure atzera egite honek gutxienez erakustera ematen digu berrikuntzaren behararen neurria, baita ideia eta obren argitzeko premia ere».

Pierre Joxe Defensa ministroak ildo berari jarraitzen zion adieraziz «frantziarrek abisu bat eman nahi izan diote Gobernuari. Argi da gure alde ez den iritzi olde bat badagoela eta behar dugula hau aztertu». Jean Poperen

Ustekabea

Hauteskunde erregionaletan izandako ezusterik handiena botoemateen partehartze handia izan zela azpimarra daiteke. Izan ere, azken hilabeteotan plazaratuak izan ziren aburu ikerketa ia guztien arabera abstentzioaren neurriak kasik erdiraino iritsi behar zuten. Eta alderantziz gertatu da, botoemateen kopurua % 68,7 igo dela jakitera eman bait zen modu ofizialean. Gainera daitekeenez, erregio eta kantonamenduetarako bozketa hauei esker, aspaldian nabaritzen zen abstentzio handiak behera egin du Frantzian. Aurreko erregio hauteskundeetan, ordea, Legebiltzarrekoak ere zirenez, abstentzioa % 22 izan zen soilik.

alderdi sozialistako burukideak ueste zenez aldiz, «Gobernuak eta bere aldeko gehiengoak kontuz begiratu diote emaitza hauei» baina gaineratu zenez «PSren behera egite honek ez dio mesederik egin oposizioaren batasunari».

EKOLOGISTAK ZATIKETAZ DAMUTURIK

Hauteskunde hauetan arrakasta zabala lortu duten ekologisten aldetik Brice Lalonde Ekologia Belaunaldia mugimenduko buru den Ingurugiro ministroak azpimarratu zuen «lortu ditugu emaitzek bultzada handia ekartzen diote ekologia arduradun eta errealistari» baina ekologisten zatiketaz damutu zen ere erranez horrelakorik ez balitz izan, Frantziako hirugarren indar politikoa izango zela gaur egun. Berdeak alderdiaren izenean aldiz Antoine Waechterek azpimarratu zenez «ekologisten erroak gero eta barnago dira Frantziako bizitza politikoan».

UPFeko ordezkariak bere koalizioa «Frantziako lehen indar politikoa bihurtu dela» azpimarratu zuten eta gogor ekin ere eredu proportzionalaren aurka. Chiracen ustez «erregio asko gobernagaitzak izatea ekarriko bait du». Giscardek Auvergneko gauraipenaz solik hitzegin zuten.